

Egin HITZAren HARPIDEDUN

Asteazkena, 2013-06-26

hitza Info
Goierriko albisteak

ZUREA DA HITZA

Nabigazioa ☰

San Pedro jaiak ospatuko dituzte mutiloarren bihartik aurrera

by **Asier Zaldúa** on 2013/06/26 in **FESTAK**

Bihar hasiko dira Mutiloan San Pedro jaiak. Igandea bitartean, egunero egongo dira ekitaldiak. Jendetsuena, urtero bezala, sagardo dastatzea izango da, etzi. Festak hasteko, betiko moduan, txerria jarriko dute udaletxeko balkoian. Izan ere, mutiloarrak txerrigorri ezizenez ezagutzen dituzte.

Ondoren, pala lehiaketako azken partidak jokatuko dituzte. Finalean, Juan Inazio eta Eñaut Altuna aita-semeak Asier Agirre eta Iñigo Muñoaren aurka arituko dira. Hirugarren posturako, berri, Gotzon Ansoleagak eta Alberto Aranburuk Bixente Goikoetxearen eta Martin Callejoren aurka jokatuko dute.

Aurten zortzi bikotek parte hartu dute. Pala txapelketan parte hartu ahal izateko bikoteko kide bat gutxienez Mutiloakoa izatea derrigorrezkoa da.

Ondorengo patata tortilla lehiaketak ere ikusmin handia piztuko du, batez ere bertaratzen direnek parte hartzaileek prestatutako tortillak dastatzeko aukera edukiko dutelako. Gainera, udalak ardoa banatuko du.

Parte hartzeko Ostatun eman behar da izena. Ondoren, herriarrek toka lehiaketan parte hartuko dute. Bi sari emango dituzte: bata gizonezko onenari eta bestea emakumezko onenari. Bukatzeko, Gabiriako trikitilariak joko dute.

Etzi jaietako ekitaldi jendetsuena egingo dute: sagardo dastatzea. Aurten 26 sagardotegi desberdinetako sagardoa dastatzeko aukera egongo da. Gainera, taloak, pintxoak eta oilasko erreka jateko aukera egongo da.

Aurtengoa 21. edizioa da eta, beti bezala, Goierri osoko jendea hurbilduko da Mutiloara. Askok eta askok urteak daramatzate kale egin gabe.

Larunbatean mutiloarren jaietako egun handia ospatuko dute: San Pedro eguna. Aipatzekoa da gauean moztorra gaua ospatuko dutela eta argazki lehiaketako sariak banatuko dituztela. Lehiaketa honetan herriarrek parte hartu dute, eta bi sari banatuko dituzte: helduen artean onenak bi lagunentzako afaria irabaziko du eta argazki onena aurkeztzen duen onenari argazki kamera bat oparituiko diote. Gainera, gazte bazkaria eta herri afaria egongo dira. Bi otorduetarako lekua hartzeko 943 80 11 66 telefono zenbakira deitu behar da.

Igandeko ekitaldiei dagokienaz, mutiloarren herri kirol erakustaldi aparta antolatu dute. Goenatxo harri-jasotzaileak eta eskualdeko lau aizkolarik parte hartuko dute: Iñaki Azurmendi arriarandarrak, Xabier Zaldúa zumarragarriak, Xabier Dorronsoro zeraindarrak eta Aitor Urteaga idiazabaldarrak.

Bukatzeko, azpimarragarria da ere udaletxeko ganbaran eskulan eta argazki erakusketa egongo dela. Eskulanak herrian antolatzen diren ikastaroetan parte hartzen duten emakumeek egin dituzte, eta argazkiak lehiaketara aurkeztutakoak izango dira.

Iñaki Ugalde alkateak asteburuan eguraldi ona egingo duela esan du eta goienritarrei Mutiloara hurbiltzeko gonbita luzatu die.

Egitaraua

Bihar

- 18:30. Mutiloako pala txapelketako finala.
- 19:30. Patata tortilla lehiaketa. Ondoren, dastatzea, ardo dastaketarekin batera.
- 20:00. Toka lehiaketa.
- Iluntzean. Trikitilariak.

Etzi

- 20:00. Sagardo dastatzea, talo, pintxo eta oilaskoarekin.
- 23:30. Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

Larunbata

- Eguerdian. Bazkaldu aurreko poteoa.
- 14:00. Gazte bazkaria.
- 17:00. Umeentzako puzgarriak, jolasak eta merienda.
- 21.00. Herri afaria. Aurretik, ardo banaketa.
- 23.30. Moztorra gaua, txerri harrapaketa eta Ezten Giro eta Guri Bost taldeen eskutik dantzaldia. Argazki lehiaketako sariak banatuko dituzte.

Igandea

- Goizean. Txistulariak.
- 11:00. Bola lehiaketa.
- 11:30. Meza.
- Ondoren. Dantza saioa.
- Bazkaldu aurretik. Elustondo anaia-arrebak trikitilarien saioa.
- 18:30. Herri kirolak.
- Ondoren. Erromeria.

📍 **Iñaki Ugalde, sagardo dastaketa, San Pedro jaiak**

◀ Ordiziako Bilduk ez dio zilegitasunik ematen hondakinen bilketari buruzko galdeketa

Profile

Sign in with Twitter Sign in with Facebook

or:

Name

Email Not published

Website



CAPTCHA Code *

Post It



Bilatu zure inguruko sagardotegia

Bilatu



Theys edergintza

deskontua

%49

33,00 €

Eskaintza ikusi

SAN JOAN SUA



INKESTA

Zer iruditzen zaizu ikastetxeetan erlijioa derrigorrezko ikasgai izatea?

- ☐ Ondo
- ☐ Gaizki
- ☐ Berdin dit

Vote

GUTUNAK

Bildu: Bista Alai eta gezurrak
Patxi Plazaola (Beasaingo alkate ohia) Azken egunotan,...

BIDEOAK



San Juan sua Urretxun. 2013 ekaina

2:00



Neskatxen dantza eta sua Beasainen

1:59



Klak!Son Urretxun. 2013 ekaina

4:25

LABURRAK

Joxe Gabirondok lidertza sendotu du Zaldibian

Zenbait ikastarotan ate irekiak egingo dituzte

Xabi Aiestaran paleta goma txapelketako partidak, bihar

Simpson, Haddar eta Tudelak Ampo Ordizian jarraituko dute

Igor Esnaolak Gipuzkoako sega finala du igandean

Ataundik Bilbora txangoa egingo dute jubilatuek

Irakurri guztiak

GOIERRIKO BLOGARIAK



argi-oilar: iz. ZOOL. Upupidoen familiako hegazi koraziformea, 30 cm inguruko tamaina duena. Moko beherantz ku...



Eraldalab 2013 Donostia.: *Banan-bana ikusten asperten bazera hemen dituzu argazki guztiak batera: <http://www.flickr.com/photo...>*



TTIKLiK! Galtzaundi aldizkarian: *Galtzaundi aldizkarian. 2013-06-21 Iturria: www.bedaio3000.com Gurasoei, batipat, zuzenduta...*



Kristal hautsi bat marko baten barruan: *Bizi dezagun harreman bat idealizatu gabe, bizimodu bat antolatzeke, eguna helbururik, gaua ametsik...*



F7 FINAL EGUNA: *Datorren larunbatean ospatuko da, heRri bazkaria barne. 35 taldek eman zioten hasiera maiatzaren 18...*



AIAKO HARRIEN ZEHARKALDIA: ERROILBIDE (837 m), TXURRUMURRU (828m.), IRUMUGARRIETA (811 m.) ETA MUGANIX (758m.). 2013/06/16: *Duela hirurte antzuak izan ziren bi saiakeren ondoren, hirugarrengoan Aiako Harrietako mendi bater...*



GARAGARDO LANTEGIAK: The Botanist (Londres, Ingalaterra): *Aurreko larunbatean Madrilgo Kako, Graciella eta Karlitros "El Drogas" ikustera etorri z...*



Adiskide, egin dezagun euskaraz!: *Karmele Aierbe Euskaldunen artean, euskaraz jakin arren, erdaraz aritzen diren ezagun askorekin sa...*



Bat eta Bat (VIII): *Hemen duzue azken 1 eta 1a Beasaingo Loinaz jaiak eta gehienbat txozna lekuaren leku aldaketaren ing...*



san juan: *San Juan, San Juan heldu da, Goiberrirako eginiko ilustrazio. San Juan, san Juan heldu da. Ilustraci...*



BILATU



HERRIAK

Altzaga | Arama | Ataun | Beasain | Ezkio-Itsaso | Gabiria | Gaintza | Idiazabal | Itsasondo | Lazkao | Legazpi | Legorreta | Mutiloa | Olaberria | Ordizia | Ormaiztegi | Segura | Urretxu | Zaldibia | Zegama | Zeraín | Zumarraga

13°C

Gaur **18°C** **7°C**
 Bihar **18°C** **8°C**
 Ostirala **18°C** **9°C**
 © Tutiempo.net **Más »**

ZORION AGURRAK



Garazi Mujika Lasa
 7 urte! Zorionak potxola eta ondo pasa oporretan!

[irakurri gehiago »](#)



Zugaitz eta Enetz (Mutiloa)
 6 eta 1 urte! Zorionak bikote. Ondo-ondo ospatu asteburuan Intzarekin eta familiarekin. Txokolatezko muxuak!

[irakurri gehiago »](#)

Guztiak irakurri

ESKELAK

Jose Antonio Irastortza
 Itziar Zabaleta

Guztiak irakurri

BERRIKETAN.INFO



[leire narbaiza arizmendi](#)

posted an update

[10 hours, 15 minutes ago](#)

Ez dakit serie bat ez ote dudan idatziko! Ametsetan

Edukira salto egin |

Salto egin nabigazioara



[Aitor Manterola](#)

posted an update in the group

[Futbolsofatzen](#)

[10 hours, 48 minutes ago](#)

20 urtez azpiko Munduko Kopan, gaur: Australia-El Salvador (1-2) Mexiko-Paraguai (0-1) Turkia-Kolonia (0-1) Mali-Grezia (0-0).



[Iñaki Petxarroman](#)

posted an update

[12 hours, 2 minutes ago](#)

Nafarroako Kuxaren auziaren inguruko dokumentala Interneten ikusgai jarri du Ateak Ireki-k. Merez du ikustea.



[Aitor Manterola](#)

posted an update in the group

[Futbolsofatzen](#)

[12 hours, 41 minutes ago](#)

Hedabide askotan zabaldu da Beñat Etxebarria fitxatu duela Athleticek, 8 milioi euro ordainduta. Klubak ez dio oraindik ofizialtasunik eman.



[Iñaki Petxarroman](#)

posted an update

[14 hours, 14 minutes ago](#)

Ofizial egin du Oñatiko Udalak ohar baten bidez: heldu den astelehenean hasiko dira atez ateko bilketa sistemarekin. Herritarrei eskerrak eman dizkie udalak eskainitako laguntzagatik. <http://www.oinati.eu/albisteak/hondakinen-atez-ateko-bilketa-sistema-astelehenean-uztailaren-1ean-jarriko-da-martxan>

BEREZIAK

WEBGUNE LAGUNAK:

POPULARRAK	EKARPENAK
Atez ateko zabor birketa sistema uztailearen 4an jarriko dute martxan Seguran 2013/06/19	
Mosaiko jendetsua osatuko dute Ordizian atez atekoari babesa emanaz 2013/06/20	
Euskaltel taldeko Rufino Murgia masajista zauritu da, zirkulazioko istripuan 2013/06/20	
Olaberriko Ancelornen langileek onartu dute enpresako akordioa 2013/06/17	
Ordizia Zero Zaborrek kontzentrazioa egin zuen plazan 2013/06/24	

PAPEREOA 2013-06-26

- «Sariak, tituluak, hor daude, baina ni esperientziarekin gelditzen naiz»
- Goldeketaren xehetasunak eman dituzte
- San Pedro jaiak ospatuko dituzte mutiloarren bihartik aurrera
- Beasaingo III. film laburren lehiaketako sariak bihar banatuko dituzte Igartzan
- 'Biolentziari ez' esan ziotenen istorio bat



ALBISTE GUZTIAK IRAKURRI

GOIBERRI 64. ZENBAKIA

- Goierriko mendirik altuena, Everest
- "LOMCE legeari ez"
- «Aktore lanetik bizitzea ez da erraza, gaur lana duzu, eta bihar auskalo»
- Igerilekuak herriko gazteek kudeatuta
- «Aukera polita da, baina Capellan eta Lasak topera ez aritzea espero dut»



ALBISTE GUZTIAK IRAKURRI

KIROLA

- Azken agur jendetsua Rufino Murgiori
- Gurutze Fernandez: «Sariak, tituluak, hor daude, baina ni esperientziarekin gelditzen naiz»
- Mendia eta Garcíaren taldea Pakistanen da, eta bihar abiatuko dira
- Olaberria Herriarteko txapeldunorde da, palan

KULTURA

- Suaren bueltan agurtu dute goierritarrek urteko gaurik motzena
- Klaklson taldearen kontzertuko irudiak
- Tobera musika eskolakoek ikasturte amaierako kontzertuak eman dituzte Seguran eta Zegaman
- Zaldibian musika ikasleek kontzertua egingo dute

AISIA

- Aurtengo Baserni Eguneko protagonistak emakume baserritarrek izango dira
- Ataunen udarako kirol jarduerak prestatu dituzte
- Julen Izagirrek irabazi du Santa Isabel jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa
- Lander Sobero gogoratu eta inguruak ezagutzera emateko mendi paseoa

GIZARTEA

- Ordiziako Bilduk ez dio zilegitasunik ematen hondakinen bilketari buruzko galdeketa
- Galdeketa xehetasunak eman dituzte
- Azken agur jendetsua Rufino Murgiori
- Andramendi Ikastolakoek ikasturte amaierako festa ospatu dute

EKONOMIA

- Lau lagun Adegiko buruaren enpresan kateatu dira, metalgintzako hirugarren greba egunean
- Metalgintza arloko hitzarmena aldarrikatu dute Ordizian, bigarren greba egunean